

Ebazpena: R046/2025
Espedientea: E026/2023

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 19a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek; bada, hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren bidez zehaztu nahi baita nork daukan eskumena ikuskatzeko IBERDROLA SAK (XXXXXXXXX1) 2016ko irailetik 2019ko abendura bitartean presidente-kontseilari eskuordeari eta zuzendari nagusiari lan-etekinak direla-eta konturako atxikipenak egiteko betebeharra. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 26/2023 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ikuskapen-egiaztapen bat egin zion IBERDROLAri, 2016ko irailetik 2019ko abendura bitartean presidente-kontseilari eskuordeari eta zuzendari nagusiari lan-atxikipenak egiteko betebeharraren harira, eta, horren ondorioz, AXX-XXXXXXXX1 eta AXX-XXXXXXXX2 desadostasun-aktak hasi ziren.

2.- 2023ko martxoaren 7an, IBERDROLAK BFARI jakinarazi zion bi akta horiek hasi zirela.

3.- 2023ko maiatzaren 5ean, BFAk inhibitzeko eskatu zion Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, zegokion ikuskapen-prozeduraren bidez egiaztapena egiteko eskumenari dagokionez, eta berronetsi zuen eskumena berea zela.

4.- 2023ko ekainaren 23an, BFAk Arbitraje Batzordean aurkeztu zuen eskumen-gatazka, zeina 26/2023 espediente-zenbakiarekin izapidetu baita prozedura arruntaren bidez.

5.- Hasierako alegazioak egiteko epearen barruan, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak amore eman dio BFAREN uziari, kontuan izanik Auzitegi Gorenaren 2025eko ekainaren 2ko 672/2025 Epaia (ECLI:ES:TS:2025:2583), zeinaren bidez ezesten baita Zerga Administrazioako Estatu Agentziak Arbitraje Batzordearen 48/2023 Ebazpenaren aurka jarritako errekurtsioa (ebazpen horretan, 13/2016 eta 32/2017 eskumen-gatazkak ebatzi ziren).

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, artikuluko horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta Foru Aldundien artean edo Foru Aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.»

2.- Zerga Administrazioako Estatu Agentziak amore ematea.

Nahiz eta 39/2015 Legeak, zeina aplikatzekoa baita, bat etorrita Arbitraje Batzordearen Araudiaren (1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen) 8. artikuluan xedatzen denarekin, ez duen erregulatzen amore ematea, baizik eta soilik atzera egitea prozedura bukatzeko modu gisara, egia da desagerrarazi egiten duela Arbitraje Batzordea gaia ezagutzeko gaitzen duen gatazka edo desadostasuna; hortaz, ez dagoenez beste interesdunik gatazkarekin jarraitzea eskatu duenik, eta ez denez interes orokorreko desadostasun bat (administrazio-eta jurisdikzio-arloan ebatzita baitago), erabaki behar da prozedura amaitzea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKITZEN DU

1.- 26/2023 gatazka artxibatutzat deklaratzeko, bestelako izapiderik egin gabe, bere xedea galdu duelako.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta IBERDROLA SAr.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.